



JANTOKI ZERBITZUARI BURUZKO INFORMAZIOA

Jantoki zerbitzuari buruz indarrean dagoen araudia

- [58/2024 FORU DEKRETUA](#)
- [Ebazpena, urteko jarraibideekin](#)

Eskola-jantokiko zerbitzuaren erabiltzaileak

Eskualdeko jantokiak dira Hezkuntza, Kultura eta Kirol Departamentuak hala izendatzen dituenak, ikastetxeetan sortzen diren beharrei erantzuteko, hain zuzen ere, eskolara joateko Hezkuntza, Kultura eta Kirol Departamentuak antolatutako garraioa erabili behar duten ikasleak daudenean eta garraio zerbitzu hori eguerdiko joan-etorririk gabea denean. Foru Komunitateko Administrazioak sortu eta antolatuko ditu, Eskola Kontseiluarekin eta ikastetxeetako zuzendaritzekin lankidetzan.

Jantokiaren kudeaketa

Zerbitzua kontratatzen duten eskualdeko jantokietan, Hezkuntza Departamentuak hautatuko du kontratista, Eskola Kontseiluak emandako oharra kontuan hartuta.

Zerbitzu Osagarrien Atalak **ARAMARK** enpresa kontratatu du. Enpresa arduratzen da elikagaiak erostean, langileak kontratatzeaz, menuak diseinatzeaz eta ikastetxean bertan janaria prestatzeaz.

Antolaketa

Jantoki zerbitzuan bi txanda egingo dira:

1. txanda, 14.00etan: Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza
2. txanda, 15.00etan: DBH

(*) Jantokiko erabiltzaile kouruaren arabera, antolaketa honek aldaketak izan ditzake.

- Jantoki zerbitzua **irailaren 4ean hasi** eta **ekainaren 21ean amaituko da**.
- Jantoki zerbitzua erabili ahal izateko, **ekainean** bidaltzen dizuegun **INPRIMAKIA** behar bezala bete behar da eta bertan zehazturikoa betetzeko konpromezua hartuko da **ikasturte osorako**. Ekainean izena ematen ez duten ikasleak ezin izango dira jantokian sartu urriaren 1era arte eta ondorioz, ekainean ere zerbitzua erabiltzeko aukera galduko dute.

-Jantoki-modalitateak ez dira nahierara eskainiko eta honako hauetara mugatuko dira:

- Irailetik ekainera. Arratsaldez jarduerarik ez dagoen egunarekin eta gabe (ostirala)
- Urritik maiatzera. Arratsaldez jarduerarik ez dagoen egunarekin eta gabe (ostirala)

-Garraiatutako ikasleak, zuzenean matrikulatuko dira "egunero, irailetik ekainera" modalitatean, eta zerbitzua ordainduko dute, bertaratu ez arren. Ondorioz, **EZ dute izen emate imprimakia beteko.**

-Ikasturtean zehar suertatu daitezkeen aldaketak onartuko diren arren, **menuari dagokion janariaren zati proportzionala deskontatuko da eta zaintzaileei dagokien ikasturteko kostua bere gain hartu beharko du erabiltzaileak.**

- 3 urteko ikasleak iraileko azken astean hasiko dira jantoki zerbitzua erabiltzen eta ondorioz egun hauek bakarrik kobratuko zaizkie irailean. 3 urteko ikasleen egokitzeapena dela eta, momentu honetan ikasturte osorako erabaki bat hartzea zaila izan daitekeen arren, inkesta betetzea eskatzen da aurreikuspen bat egiteko.

- Egun solteak. Zerbitzua egun solteetan erabiltzeko aukera egongo da, betiere kontratatutako zaintzaileen ratioak errespetatzen badira. Behin plazak daudela baieztatuta, goizeko 10:00ak baino lehen abisatu beharko da. Larrialdi kasuetan bakarrik onartuko dira goizean zehar jasotako eskaerak.

- Menu berezia behar duten ikasleek (esate baterako alergiak, intolerantziak,...) **MEDIKUAREN ZIURTAGIRIA** ekarri beharko dute eta ikasturte hasiera bakoitzean berritu beharko da.

- Noizbehinka gelditzen diren eta menu berezia behar duten ikasleen kasuan, familiaren ardura izango da gelditzen den egunean ikaslearen alergia edo intolerantziak jakinaraztea. Kasu hauetan, ikasleari menu berezirik ez zaio eskainiko eta dagoen menua egokituko da bere beharretara.

- Bizileku aldaketa balego ikastetxeari jakinarazi behar zaio dagokion ERROLDATZE AGIRIA entregatuz.

- Edozein zalantza, arazo edo aldaketa bideratzeko jo mesedez idazkaritzara eta EZ tutoreengana.

Kuotak

Ikasturteko kuota jantoki-zerbitzua antolatu ondoren kalkulatu da ikasturtero, Hezkuntza Departamentuak emandako jarraibideen arabera, eta Eskola Kontseiluaren oniritzia izango du.

GARRAIATU GABEKO IKASLEAK		IKASLE GARRAIATUAK ETA/EDO GARRAIATUAK eta EKONOMIA EGOERA
Ohiko erabiltzaileak	Ezohiko erabiltzaileak	

		AHULEKOAK
6,65 € Lekunberriko Udalaren dirulaguntzarekin 5,65 €	7,35 € Lekunberriko Udalaren dirulaguntzarekin 6,35 €	2,00 €

(*) Kuotek menua, eskulanak, monitorizazioa eta garbiketa-produktuak barne hartzen dituzte.

Ikasle garraiatuen kasuan, jantoki zerbitzua ezinbestekoa eta behar beharrezkoa izanik, ez da noizbehinkako aukerarik eskainiko eta ikasturteko 175 egunak kobratuko dira dagokion hilabeteko erreziboetan. Eskola-garraiorako eskubidea duten eta hori erabiltzen EZ duten ikasleek jantokiko dirulaguntzarako eskubidea galduko dute.

Garraiatu gabeko ikasleen kasuan, izen emateko imprimakian adierazitako egun kopurua kobratuko da ondorengo zehaztapenekin:

- Goizeko 10.00ak baino lehen hutsegitea justifikatzen duten erabiltzaile guztiei, menuari dagokion janariaren zati proportzionala deskontatuko zaie baina zaintzaileei dagokion kostuaren zatia ordaindu beharko dute **(2,50€)**.
- Hutsegitea aldeztu aurretik edo dagokion epean jakinarazten ez den kasuetan, eguneko kuota osoa kobratuko zaie erabiltzaileei.
- Ikastetxeak antolatutako eta eskola-ordutegia gainditzen duten jardueretan (*English week*, Aste zuria, ateraldiak, etab.), menuaren zati proportzionala bakarrik deskontatuko da, ez monitorizazioarena.

Kobrantzak errazteko, hilean egun-kopurua edozein dela ere, berdin ordainduz, kuotak pro-rata kalkulatu dira; hau da, aukeratutako modelitatearen arabera, ikasturteko jantoki-zerbitzuko egun guztien kostua kalkulatu da eta hamar hilabetetan banatu da.

Kuotak ordaintzen ez badira **jantokiko plaza galduko da**. Plaza kentzeko erabakia Eskola Kontseiluak hartuko du.

Jantokirako banakako laguntzak

Ikastetxeak hala eskatuta, jantokiko banakako laguntzak ematen ahalko zaizkie Haur Hezkuntzako bigarren zikloa edo Lehen Hezkuntza egiten ari diren ikasleei, baldin eta ekonomia egoera ahulean badaude.

Banakako laguntza horien zenbatekoa kalkulatu da jantoki arruntetan diruz lagundutako jankideentzat dirulaguntza kalkulatu den bezala.

Familia interesdunak jar daitezela harremanetan ikastetxearekin.

Harremanetarako

IRAILETIK EKAINERA bitarte, astelehenetik ostiralera, ikastetxea arduratuko da jantokiaren kudeaketaz.

Ikastetxeak izendatutako eskola-jantokiko arduradunak honako hauek dira: ***Irantzu Zabala (Arduraduna) eta Arantxa Huici (Administraria)*** .

Jantokiarekin lotutako edozein aferetarako (faltak, noizbehinka joatea, kobrantzak, zalantzak, menu aldaketak), jarri harremanetan honako posta elektroniko honen bidez: cplekumb@educacion.navarra.es.

Jantokira faltatzeko edo noizbehinka joateko, abisatu egin beharko da **egun bereko goizeko 10:00ak baino lehen**, beranduenez.

Funtzionamendua

Eskolako webgunean ikusi ahalko dute asteko menua jankide guztiek. Horrez gain, enpresaren webgunean ere jarriko da.

Enpresako dietistek egiten dituzte menuak. Ahalegina egiten da menua askotarikoa izan dadin (lekaleak, pasta, barazkiak, haragia, arraina, fruta eta esnekiak). Barazkiak osorik ematen dira, birrindu gabe.

Ez da janaririk gordeko egun batetik bestera. Eguneko menua jankide guztiei emanen zaie, eta zainduko da plater bakoitzean zer zerbitzatzen den, kantitatea behar bestekoa eta egokia izan dadin jankidearen adinerako.

Ikasle guztiek menu bera dute, honako hauek izan ezik:

- Medikuak hala aginduta, menua aldatzeko beharra justifikatzen dutenek, betiere medikuaren txostenarekin.
- Haragia ez jatea eskatzen dutenek.
- Erljio arrazoiengatik haragi mota jakin bat jaten ez dutenek.

Ikasleren batek plater jakin bat ez badu nahi edo gustatzen ez bazaio, gutxieneko kantitate bat janaraziko zaio, denetarik jaten ikas dezan. Lehenengo platera errepikatu ahal izanen da, nahi bada.

Hondakinak sailkatu egingen dira, birziklatzeko.

Jantokiarekin zerikusia duen edozein gai kudeatzeko, ikastetxeko idazkaritzara jo behar duzue.

Jantokiko begiraleen eginkizunak

Jantokiko begiraleek zainduko dute jankideen jokabidea egokia dela, eta zerbitzuak egingen dituzte ikasleek bazkaldu bitartean eta bazkaldu aurreko eta ondoko aisialdian.

Ikastetxeko Bizikidetza Erregelamenduan ikasleentzat ezarritako arauak

- Jankideak eta begiraleak errespetatzea.
- Puntualtasuna.
- Eskuak garbitzea jan aurretik.
- Aulkian behar bezala esertzea.
- Mahai-tresnak, ahozapiak... behar bezala erabiltzea.
- Denetarik probatzea.
- Oihurik ez egitea.
- Eskua altxatzea zerbait behar bada.
- Mahaitik altxatzeko baimena eskatzea.
- Janaria, ogia, ahozapiak... lurrera ez botatzea.
- Oinez ibiltzea, ez korrika.

Oroitzea ikastetxeko elkarbizitza arauak indarrean daudela hezkuntzako une orotan, jantokiko denboran barne.

Ongi jaten ez duten edo ongi portatzen ez diren ikasleekin erregistro bat (Intzidentzia orria) eginen da, familiak eskolarekin elkarlanean jardun dezan.

Siesta

Ikasturte bakoitzaren hasieran, familien eskaeraren arabera, baloratuko da Haur Hezkuntzako 3 urteko ikasleek bazkaldu ondoren siesta egingo duten edo ez.

Hortzak garbitzea

Bazkaldu ondoren hortzak garbitu nahi dituzten ikasleek jantoki orduan hortzak garbitzeko aukera izango dute, beti ere, beharrezkoa materiala etxetik ekarri eta beraiek arduratzen badira.

Bestelakoak

Jantokia zerbitzua 15.30etan amaituko da egunero.